

2010-09-29an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 29 -09-2010

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria.  
Edorta Barandiaran GARCÍA  
Ander Agiriano Errasti  
Begoña Eraña Lazkano  
Maidier Otamendi Tolosa  
Carmelo Leceta Abásolo  
Ignacio Pierrugues Barberán  
Unai Salaberria Múgica

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko irailaren hogeita bederatzian, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira bertan izan Urrutia jauna eta Merino jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho y treinta minutos del día veintinueve de setiembre de dos mil diez , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten el Sr. Urrutia y el Sr. Merino.



## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2010-05-31, 2010-07-08, 2010-07-26 eta 2010-09-13.

2010-05-26an egindako bilkuraren akta onartzeke gelditu da, aurrez erabaki baita hitzez hitz jasotzea MESEDETAKO AMAREN EGOITZAKO PATRONOEN JUNTAKO UDAL ORDEZKARIARI BURUZ UDALBATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIA BALIOGABETZEARI buruzko eztabaidan izandako parte hartzeak .

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK.**

### **3.1.- ERABAKIAK**

Alkate jaunak 2010eko irailaren 28ra arte hartutako erabakien berri eman du eta horien laburpenaren kopia banatu du.

### **3.2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK**

Alkateak adierazi du ez dela luzatuko, aktak onartzeko puntua nahikoa luzea izan baita, eta arrazoi horrengatik erabaki zuela ohiko bilkuraren eguna mantentzea eta ez pilatzea akta gehiago ez ohiko beste bilkura bat eginda. Hala ere, gehitu du laster egin beharko dela ez ohiko beste bilkura bat hiltegi gaia jorratzeko.

## **3.- OLAETA PLAZAKO GARAJEETAKO JABEKIDEEKIN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA. EKARPENA ONARTZEA.**

Olaeta plazako garajeetako jabeekideek garajetako teilatua konpontzea aztertzen ari dira bertatik ura sartu eta arazoak sortzen dituelako.

Konpondu beharreko guneak gainazalean erabilera publikorako zortasundun azpieraikitako orube pribatu izaera du. Udalak, bere aldetik, gune horretako zoladuraren eta oinezkoentzako sarbidearen eta eskaileren egoera txarra dela-eta, azaleko drainadura sarea diseinatu eta berritzeko, zoladura aldatzeko eta bertako eskailerak eta eskailera-buruak konpontzeko beharra aztertu du.

Kontuan izanik jarduera koordinatua egitea herri onurakoa dela, horrekin kostu ekonomikoa murrizten delako geroagoko obra-berriztapenik ekidinez, egokitzen jo da Udalak proiektu bakarrean jasotzea plaza eta erabilera publikorako eremua egokitzeko zoladura hobetzea eta egokitzea, gainazalaren drainadura eta aparkalekuen forjatua iragazgaiztea itogin eta hezetasun arazoak konpontzeko. Aipatutako proiektua ERAIKI S.L.U. enpresak egin zuen 2010eko uztailean.

Obrak egiteko ekonomia, azkartasun eta eraginkortasunari begira, Olaeta plazako garajeetako jabeekideek, 2010eko irailaren 12an egindako batzar orokorrean, iragazgaizteko obrak egitea erabaki zuen eta Eskoriatzako Udalari obra horiek 2010ean zoladura eta gainazaleko drainadura egokitzeko lanekin batera kontratatuzko eskatzea.



2010eko irailaren 22ko Alkate erabakiz obra proiektua onartu eta kontratazio espedientea hastea erabaki zen, kontratua esleitzeko baldintza izanik aurrez jabekideekin hitzarmena sinatzea. Hitzarmenean garaieetako iragazgaizte lanak finantzatzeko eta dagokien portzentajea elkarrekin adostutako epeetan ordaintzeko konpromisoa hartu beharko dute jabekideek.

Negoiazioen ondoren jabekideek egin beharreko ekarpenari buruzko akordioa lortu da.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Olaeta plazako garaieetako jabekideekin hitzarmena sinatzea garaieetako forjatuaren iragazgaizte lanak Olaeta plazan Udalak egin behar dituen hobetze eta egokitze lanekin batera egiteko lankidetzaren erregimena arautzeko.

**Bigarrena.-** Olaetako plazapeko garaieetako forjatua iragazgaizteko lanak finantzatzeko jabekideek egin beharreko diru ekarpena 45.000 eurotan finkatzea. Ekarpene hori ondoren adieraziko diren epeetan eta kontabilitate-mugimendu bakarrenean egingo da:

1. epea: 9.000 euro azaroaren 1etik 15era bitartean.
2. epea: 18.000 euro otsailaren 1etik 15era bitartean.
3. epea: 18.000 euro maiatzaren 1etik 15era bitartean.

**Hirugarrena.-** Sinatu beharreko hitzarmenean ekarpenari buruzko baldintzaz gain ondorengoak ere jasotzea:

- Proiektuan aurreikusitako obren aurrekontuan eragin ekonomikoa izan eta garaieetako forjatuaren iragazgaiztearekin harreman zuzena duten kontratuari buruzko gorabeherak, hala nola, esleipen prezioa jaisteak, kitapena gehiago izateak, zerga tipoen aldaketak... EZ dute eraginik izango jabekideek egin beharreko ekarpenean.
- Olaeta plazako garaieetako jabekideek ez dute inolako erreklamaziorik, ekintzarik edo demandarik aurkeztuko Udalaren aurka jabekideei dagozkien lanak kontratatzeagatik.
- Hitzarmen hau administrazio-mailakoa da, eta beraz, herri administrazioen eta partikularren arteko lankidetzaren hitzarmenei aplikatu dakizkiekeen ordenamendu juridiko administratiboak arautuko du bere interpretazioa eta garapena. Hitzarmena interpretatzerakoan eta betetzerakoan sor daitezkeen auzigaiak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren arduraren eta eskumenekoak izango dira.
- Parte hartzen duen alde bakoitzak hitzarmen honen arabera hartutako konpromisoak datzekien erantzukizunak hartzen ditu bakarrik bere gain.
- Hitzarmenak sinatzen denetik sortuko ditu ondorioak eta behartuko ditu kontratuan parte hartzen dutenak, eta kontratatutako jarduerak kitatu arte izango du indarra.



- Aurreko klausulan aipatzen den indarraldiaren epea igaro delako edo aldeetako batek hautsi duelako iraungiko da hitzarmena.

Aldeko batek, onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz bete dadin edo hitzarmena hautsi dadin eskatzeko. Hitzarmena hausten bada, zein baldintzatan bukatu, eta burutzen ari diren lanak nola ordaindu erabaki beharko dute aldeek, eta hala badagokio, lan horiek ondoren nola entregatu.

**Laugarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordeztatzeko.

#### **4.- AITOR URRUTIA JAUNAK MESEDEETAKO AMAREN EGOITZAREN AURKA JARRITAKO DEMANDAREN GAINKO ERABAKI PROPOSAMENA.**

Alkate jaunak hitza hartu du eta ondorengo testua irakurri:

##### **PLENOARI PROPOSAMENA**

*Udalaren ordezkarietan Patronatuko Juntan parte hartzen duten bi udal ordezkariak egindakoa.  
Aitor Urrutia jaunak Mesedeetako amaren egoitzaren aurka jarritako demandaren gainean hartu beharreko jarrerari buruzkoa.*

*De los dos representantes municipales en la Junta del Patronato de la Residencia, sobre el posicionamiento a adoptar en relación con la demanda interpuesta por el señor Aitor Urrutia contra la residencia de Nuestra Señora de las Mercedes.*

*Aurtengo maiatzaren hasieran akreedore batek eman zion udalari Mesedeetako Amaren Egoitzaren egoeraren berri, eta salatu zuen Aitor Urrutia zuzendariak Patronatuari ezkutatu ziola egoitzak zor handiak zituela. Udal ordezkariak Patronatuan duten ordezkariak baliaturik, informazio hori izan orduko Patronatuan jakinarazi zuten.*

*Patronatuak berehala ikerketak gauzatu eta kontabilitateak eta auditoriak eskatu zituen. Ikerketak eginik, argi geratu da egoera horretara Aitor Urrutia zuzendari-administratzaileak egin duen gestio txarragatik iritsi dela. Patronatuak egindako bileretan, gai hau azaldu zenean, Aitor Urrutiak berak egoera baieztatu zuen eta bere akatsak oso larriak zirela onartu egin zuen.*

*Frogatu da Aitor Urrutiak zorrak eta informazioa ezkutatu dituela, eta gure ustez argi eta garbi geratu da gezurretan ibili dela bai Foru Aldundiarekin, bai Patronatuarekin eta baita Udalarekin ere.*

*Ondorioak oso larriak dira: zuzendariak emaitzak positiboak zirela esaten zuen arren, kontabilitateak eta auditoriak beste gauza batzuren artean honako hau azaltzen dute:*

##### *Resultados de las cuentas de pérdidas y ganancias 2006-2009*

	2006	2007	2008	2009
<i>Según contabilidad inicial</i>	*215.765,41 €	-93.744,13 €	- 320.751,99 €	- 295.492,88 €



Según auditoría definitiva	*236.478,28 €	-76.849,73 €	- 339.546,29 €	- 300.634,67 €
----------------------------	---------------	--------------	----------------	----------------

*\* Emaidza positiboak urte horretako dohaitzei esker / Resultados positivos debidos a donaciones recibidas ese año .*

*Horiek horrela Patronatuak hainbat erabaki hartu zituen, besteak beste zuzendariaren lan kontratua etetea eta baita egoera birbideratzeko beste zenbait gestio egitea ere. Horren adibide da egoitzako katalogoa eguneratzea; lan horren ondorioz Foru Aldunditik jasotzen den diru kopurua igotzea lortuko da laister.*

*Hala ere zorrak hor jarraitzen du eta zor horiek estaltzeko esfortzu handia egin behar da. Lan asko dago oraindik egiteko eta horretan indarrak batuta lan egin beharko dute Udalak, Patronatuak eta afektatu guztiek.*

*Egoera benetan larria izanik Aitor Urrutia zuzendari ohiaren erantzuna harrigarria izan da; erantzukizuna gaineratik kendu nahi du eta ez hori bakarrik, despidoa salatu eta berak ruinara eraman duen egoitzari dirua eskatzen dio orain.*

*Hori horrela, bere egunean Aitor Urrutia kaleratzeko hartutako erabakia sobra arrazoitua izan zela sinetsirik (Pleno honek ere arrazoiok berretsi zituen uztailako bilkuran) eta zuzendari ohiak aurkeztu duen demandan adierazitako argudioek ez dutela inolako oinarririk, uste dugu bere garaian hartutako erabakiari eutsi behar zaiola, eta beraz, **plenoari proposatzen diogu orduan hartutako erabakia berrestea eta horren ondorioz sor daitezkeen ondorioak bere gain hartzea. Hau da, kaleratzea ez negoziatzea eta Aitor Urrutiak jarritako demandaren ondorioz egingo den epaiketara joatea.***

Ondoren, gazteleraz irakurri du proposamena:

*En resumen, pensamos que es evidente que la situación de la residencia es gravísima, que el responsable de todo es Aitor Urrutia por su pésima gestión y que su reacción ante el despido ha sido sorprendente y lamentable. A pesar de que en mayo reconoció ante el patronato su culpa y su responsabilidad ante los hechos, ahora quiere eludirla presentado demanda contra el despido y solicitando una indemnización a la residencia que precisamente él ha llevado a la ruina.*

*Por ello, y considerando que las razones para el despido de Aitor Urrutia están sobradamente fundamentadas (como fue ratificado por el Pleno de este Ayuntamiento en julio) y que los argumentos expuestos en la demanda por él presentada carecen de todo fundamento, **entendemos que se debe mantener la decisión adoptada y proponemos al pleno ratificarla y asumir las consecuencias que de ella se puedan derivar. Es decir, proponemos no someter el despido a pactos o negociaciones y asistir al juicio que se celebrará como consecuencia de la demanda interpuesta por Aitor Urrutia.***

Bertaratuak udal ordezkari biek egindako proposamenaren jakinaren gainean gelditu ondoren, Alkateak esan du epaiketaren ahozko ikustaldia urriaren 5ean, goizeko 10:30etan, izango dela, ekitaldia publikoa dela, eta bertaratuko zinegotzi guztiak gonbidatzen dituela bertara.

Gaia eztabaidatu ondoren bozketa egin da, eta Leceta jaunaren eta Eraña andrearen abstentzioarekin eta gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak Aitor Urrutia jaunak Mesedetako Amaren Egoitzaren aurka jarritako demandari buruz hartu beharreko jarreraren gainean Egoitzako patronoen juntan udalak dituen bi ordezkariak egindako proposamena onartzea erabaki du, hau da, kaleratzea ez hitzartzea edo ez negoziatzea eta Aitor Urrutiak jarritako demandaren ondorioz egingo den epaiketara joatea.

## **5.- AUTOENPLEGURAKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**



Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Enplegua sustatzeko ekimenentzako diru laguntzak arautzeko oinarriak onartzea.

**BIGARRENA:** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik kontaktzen hasita, nahi duenak aztertu ditzan eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri eta iradokizunak egiteko.

**HIRUGARRENA:** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**LAUGARRENA:** Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan aratutako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

19:35ean Pierrugues jauna bilkura aretotik irten da.

#### **6.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Baja ematea aurreko ekitaldietan onartutako eskubide hauei:

<b>(*)KONTZEP/EPEAZ KIA</b>	<b>ZENBATEK OA</b>	<b>ZERGADUNA</b>	<b>ZERGATIA</b>
001/200101/620	51,21	ENCINA PASCUAL HERMELINA	2000/02/23ko baja (TR)
001/200201/643	53,25	ENCINA PASCUAL HERMELINA	2000/02/23ko baja (TR)
001/200301/665	54,85	ENCINA PASCUAL HERMELINA	2000/02/23ko baja (TR)
001/200401/668	56,50	ENCINA PASCUAL HERMELINA	2000/02/23ko baja (TR)
001/200501/688	58,30	ENCINA PASCUAL HERMELINA	2000/02/23ko baja (TR)
001/200601/698	60,63	ENCINA PASCUAL HERMELINA	2000/02/23ko baja (TR)
001/200701/723	62,87	ENCINA PASCUAL HERMELINA	2000/02/23ko baja (TR)
001/200901/781	67,54	ENCINA PASCUAL HERMELINA	2000/02/23ko baja (TR)
Ibilgailuen zerga. 2009. urtekoa	237,99	VICTOR MANUEL DE CAMPOS BATISTA	Matrikula aldaketa

#### **7.- LANDU JARDINERIA S.L.-k jarritako bermea itzultzea.**



LANDU JARDINERIA S.L. enpresak 3.011,51 euro itzultzeko egindako eskaria ikusi da. Diru hori Eskoriatzako berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua ematetik sortutako betebeharreri erantzuteko berme bezala jarri zen.

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusita, horren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Landu Jardineria S.L. enpresari 3.011,51 euro itzultzea. Diru hori 2010eko ekainaren 1etik 2010eko uztailaren 31ra arte Eskoriatzako berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua ematetik sortutako betebeharreri erantzuteko berme bezala jarri zen

#### **8.- CESPА, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES S.A.-K JARRITAKO BERMEA ITZULTZEA.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusita, horren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** BANCO ESPAÑOL DE CREDITO S.A.-k CESPА, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-ren alde egindako 3.521,68 €-ko abala kitatzeko baimena ematea. Abala 2010eko ekainaren 1etik 2010eko abuztuaren 14ra bitartean kaleak garbitzeko zerbitzua ematetik sortutako betebeharreri erantzuteko jarri zen.

**Bigarrena.-** Aipatutako abalaren orijinala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

19:40an, eta hurrengo gaia eztabaidatu eta bozkatu aurretik Pierrugues jauna bilkura aretora sartu da.

#### **9.- DORLETAKO APARKALEKUARI BURUZ SUKIAK ERREKLAMATUTAKO FAKTURAREN GAINEKO ERABAKIA.**

Dorletako aparkalekua egokitzeko eta zolatzeko lanei buruzko 2005eko faktura bat ordaintzeko eskatzen ari da SUKIBIDE.

Faktura hori bere garaian zergatik ez zen ordaindu ezagutzen ezenez, orduko udal arduradun ziren Juan Carlos Bengoa eta Josu Ezkurdiari obrak egin ondoren orain eskatzen zaigun diru kopurua zergatik ez zen ordaindu azaltzeko eskatu zitzaien.

Biek emandako erantzunagatik, aparkalekua egokitzea kontratistaren kontura zela esan baitzuten, hazienda batzordeak faktura ez ordaintzea erabaki zuen, eta horrela jakinarazi zitzaion SUKIBIDERi.

Erabakia jakinarazita, Juan Manuel Egaña jaunak, SUKIBIDEn ordezkariek, diru hori kobratzearen bidez kotasanari eutsi zion. Jarrera horren aurrean eta SUKIBIDEk emandako arrazoiengatik, Alkateak alde biak gonbidatu zituen Hazienda batzorde informatzailera: SUKIBIDE eta aurreko udal ordezkariek. Batzorde informatzailera bakarrik Egaña jauna agertu zen, Juan Ausmendi teknikariarekin batera.



SUKIBIDEko ordezkarietara entzun ondoren, Hazienda batzorde informatzaileak ordainketa egiteko proposamena egin du, izan ere, obrak berariaz esleitu ez baziren ere Udalak agindu zituen eta ez ziren aurreikusten Elorretako urbanizazio proiektuaren barruan.

Egindako proposamenaren arabera eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** ESKORIATZA-APARCAMIENTO DORLETA kontzeptuagatik SUKIBIDEk 2005eko irailaren 20an egindako 05FV-002 zenbakidun faktura ordaintzea 2011ko aurrekontuaren kargura. Faktura 35.199,99 eurokoa da.

(Pierrugues jaunak horrela eskatuta, ondoren hitzez hitz jasotzen dan 2010eko ekainaren 3ko Hazienda batzordeko aktan gai honi buruz jasotakoa).

*Batzordeak erabaki zuena betez, idazkariak Juan Carlos Bengoa eta Josu Ezkurdia jaunei mezu elektronikoko bat bidali zien galdetzeko zeintzuk izan ziren arrazoiak SUKIA enpresari aparkalekuko lanak ez ordaintzeko.*

*Hauek dira idazkariak jasotako erantzunak:*

*Hola Edurne,*

*Hasta donde yo sé, dentro del plan urbanístico de Elorreta, se decidió utilizar el área correspondiente a equipamiento como aparcamiento, dada la gran necesidad de los mismos en el barrio.*

*Entiendo que su acondicionamiento era a cuenta del contratista.*

*Ondo segi,*

*Josu Ezkurdia*

*Kaixo Edurne:*

*Merino me ha dicho a la mañana que hoy había comisión de Hacienda y como Carmelo ya me trasladó que, en la anterior, le habían comentado la falta de mi respuesta, y suponiendo que otra vez saldrá el tema, me gustaría que trasladases a la Comisión lo siguiente:*

- 1.- Que conozco y ratifico la respuesta que envié Josu Ezkurdia.*
- 2.- Que me resulta muy extraño que el Ayuntamiento no haya aprovechado para solucionar este tema, la oportunidad que ha tenido con motivo de la modificación de Normas de Elorreta y su correspondiente modificación del proyecto de urbanización. Este tipo de documentos se suelen "negociar" con la promotora y hubiera sido la mejor ocasión para liquidar el asunto.*
- 3.- Que si inicialmente se me pidieron aclaraciones por correo electrónico, lo lógico hubiera sido insistir a través del mismo medio y no darle la vara a Carmelo. Sin duda habrá asuntos más importantes en los que utilizar a Carmelo como correo para que solicite mi colaboración; estoy a disposición de la comisión.*
- 4.- Que si Mari Carmen Ruano no lo desmiente, creo que, así a bote pronto, sigo pagando en el Ayuntamiento el impuesto del coche y las tasas de basura de casa y de alguna otra, es decir, ya saben donde vivo.*
- 5.- Y que los dioses les sean propicios, les hará falta.*

*Ondo segi,*

*JCB*

*Gaia eztabaidatu ondoren eta erantzunek diotena kontuan izanda erabaki da SUKIA enpresari jakinaraztea zein izan den biok emandako erantzuna eta horren aurrean ezin dela ordaindu erreklamatzeko duten faktura.*

## **10.- 2011RAKO HERRI BARRUKO TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK ONARTZEA.**





Udal batzarkide guztiek ezagutzen dituzte proposatutako tarifa berriak, bozkatu da eta aho batez, honako hau ERABAKI DA:

**Lehenengoa.-** taxi zerbitzurako ondorengo tarifak baimentzea 2011rako:

1. Tarifa *			2. Tarifa **		
Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroko	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroko	Itxaronaldia, orduko
3,2124	1,0063	19,2186	3,2124	1,6050	30,2114

(\*) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(\*\*) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. tarifa aplikatuko da igandeetan eta autonomia eta herri araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, eta baita larunbatetan ere.

**Bigarrena.-** Erabaki honen berri Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari ematea indarrean dauden tarifak erabaki honen arabera aldatzeko.

## **11.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin ondorengo gai hauek gai zerrendan sartzea berretsi da:

*Eeskoriatzako Aranburuzabala kaleko 5 zenbakiko etxearen xehetasun azterketa behin betiko onartzea.*

*Luis Ezeiza Herri Eskolan dagoen etxebizitzaren erabilera pribatua esleitzeko prozedura irekitzea. Baldintza juridiko eta ekonomikoen agiria onartzea.*

## **12.- ESKORIATZAKO ARANBURUZABALA KALEKO 5 ZENBAKIKO ETXEAREN XEHETASUN AZTERKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

2010eko maiatzaren 24an hasiera batean onartu zen Aranburuzabala kaleko 5 zenbakiko etxearen xehetasun azterketa. Azterketa hori ARKILAN, ARQUITECTURA Y URBANISMO S.C.P.-k egin zuen GOI AROBIren eskariz.

Hasierako onarpena bi baldintza betetzearen menpe gelditu zen:

1.- Aurkeztutako dokumentuko 1.1. atala "Aurrekariak eta xedea" zuzendu beharko da, bertan aipatzen baita Udalak sustatu duela Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia. 226/2002 Dekretuak dokumentu hori idatzi eta onartzearen beharra ezartzen du, baina, momentuz, Udalak ez du hasi tramitazio hori. Puntu hori zuzendu beharko da.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren derrigorrezko txostena jaso beharko da dokumentua behin betiko onartu aurretik. Hasierako onarpena aipatutako txostenaren ondorioen kaltetan gabe ematen da.



Dokumentua eskatu bezala zuzendu da eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak ere egin du derrigorrezko txostena.

Hirigintza batzorde Informatiboak egindako proposamenarekin bat etorriz, eta kide guztien aldeko botoekin Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Behin betiko onartzea Aranburuzabala kaleko 5 zenbakiko etxearen xehetasun azterketa. Azterketa hori ARKILAN, ARQUITECTURA Y URBANISMO S.C.P.-k egin zuen GOI AROBIren eskariz.

**Bigarrena.-** Azterketa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gordetzeko.

**Hirugarrena.-** Behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bertan adieraztea plana hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gordeta dagoela.

**Laugarrena.-** Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Berorren aurka ondorengo errekurtsioak jarri ahal izango dira:

— Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa: EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, erabakiaren jakinarazpena jaso edo iragarki hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

— Berraztertze errekurtsioa Eskoriatzako Udalbatzarrari (nahi izanez gero), aurreko paragrafoan aipatutako errekurtsioa jarri aurretik, erabakiaren jakinarazpena jaso edo iragarki hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

### **13.- LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAN DAGOEN ETXEBIZITZAREN ERABILERA PRIBATUA ESLEITZEKO PROZEDURA IREKITZEA. BALDINTZA JURIDIKOEN ETA EKONOMIKOEN AGIRIA ONARTZEA.**

Otamendi andreak proposatuta, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak proposatutako baldintza agirian ondorengo aldaketa egitea erabaki da. Honako hau dioen lekuan:

❖ Bizikidetzta-unitateko kideak. Gehienez 30 puntu:

Adin gabeko 1: 20 puntu

Adin gabeko 2 edo gehiago: 30 puntu

Honako hau esan behar du:

❖ Bizikidetzta-unitateko kideak. Gehienez 30 puntu:

a) Adin gabeko 1 (ez C taldeko familia ugaria): 10 puntu

b) Adin gabeko 2 (ez C taldeko familia ugaria): 20 puntu

c) Familia ugaria, indarrean dagoen kontzeptuaren arabera: 30 puntu

Legezko gehiengo absolutuaren quoruma osatzen duten bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Luis Ezeiza Herri Eskolan dagoen etxebizitzaren erabilera pribatiboa emakida erregimenean esleitzeko espedienteari hasiera ematea.



**Bigarrena.-** Emakida arautuko duen baldintza juridikoen eta baldintza ekonomiko-administratiboen agiria onartzea.

**Hirugarrena.-** Lehiaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea.

#### **14.- EZKER BATUAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMEN/MOZIOA LAN ERREFORMAREN ETA GIZARTE MURRIZKETEN AURKA ETA IRAILAREN 29KO GREBA OROKORRAREN ALDE.**

Eraña andreak Merino jauna, mozioa aurkeztu duen zinegotzia, bilkurara etorri ez izana zuritu du eta horren arrazoen berri eman du.

Alkate jaunak Merino jaunari bere elkartasuna adierazi eta berarenganako errespetuagatik mozioa bozkatzeari proposatu du, nahiz eta Merino jauna bertan egon ez; bozketa egin da.

Bi zinegotzien aurkako botoekin (Leceta jauna eta Otamendi andrea) eta gainontzekoen abstentzioarekin ez da mozioa onartu.

(Merino jaunak horrela eskatuta 2010eko urriaren 27ko Udalbatzarrean, aurreko bilkuretako aktak onartzeko puntuan, ondoren jasotzen dira hitzez hitz mozioaren xedapenak).

*1.- Udalbatzak irailaren 29ko greba orokorrerako deialdia babesten du, eta udalerriko langile guztiei dei egiten die, bertan parte hartu dezaten.*

*2.- Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Lan Sailari eta Confebaski eskatzen die langileek grebarako duten eskubidearen errespetua bermatzeko. .*

*3.- Udalbatzak gobernu zentralari eta Diputatuen Kongresuari eskatzen die onartutako egokitzapen-neurriak indarrik gabe uzteko eta parlamentuan bertan Lan Merkatuaren*

*Eraldaketaarako Lege Dekretua ezeztatzeko, bidegabeak, funtsgabeak eta gizartearen aurkakoak direlako.*

*4.- Eskoriatzako Udalbatzak gobernuari eskatzen dio 65 urteko erretiro-adinari eusteko.*

*5.- Udalbatzak gobernuko presidenteari eskatzen dio gizarte-babesaren ardatza den pentsio-sistema publikoari eusteko*

*6.- Udalbatzak gobernuko presidenteari eskatzen dio zerga-eraldaketa progresiboa egiteko eta zerga-iruzurraren zein ezkutuko ekonomiaren aurkako plana ezartzeko.*

*7.- Deialdia egiten duten sindikatuei, gobernuko presidenteari eta Diputatuen Kongresuko mahaiari erabakitakoaren berri ematea.*

#### **15.- AZKEN ATXILOKETEI BURUZKO MOZIOA**

Hitza Barandiaran jaunari eman ondoren, honek mozioa aurkezteko izandako arrazoiak azaldu ditu eta mozioaren 3. eta 4. puntuen garrantzia azpimarratu du.

Ez dago parte hartze gehiagorik eta bozketa egin da.



5 zinegotziren aldeko botoekin (Alkate jauna, Leceta andrea, Barandiaren jauna, Aguiriano jauna, Otamendi andrea), 3ren abstentzioarekin (Leceta jauna, Eraña andrea eta Salaberria jauna) eta kontrako boto 1ekin (Pierrugues jauna) onartu da mozioa.

Hona mozioaren transkripzioa:

*PSOEren gerra estrategiari aurre egin behar zaio aro politiko berria irekitzeko.*

*Azken egunetan euskal herritarrok estatu espainolaren ezintasuna pairatzen ari gara. Irailaren 11rako oinarrizko eskubidek aldarrikatzeko deituriko manifestazioen debekuaren moduan, euskal herritarren aurkako polizi operazio berri bat, zeinen ondorioz 9 lagun atxilotu eta inkomunikatuak izan diren, Euskal Herrian irekitzen ari den fase politiko berriaren aurkako sabotajea da. PSOE gerra estrategia batean lerrokaturik dago eta Euskal Herrian bakerako eta gatazka politikoaren konponbide demokratikorako irekitzen ari den aukera zapuztu nahian dabil.*

*PSOEek Estatuko aparatuen bidez eta Rubalcabaren hitzetan PNVrekin adostasunez garatzen duen politika arduragabe honi aurre egitera deitzen ditugu euskal jendartea eta Euskal Herrian beste aro politiko berri bat irekitzeko lanean dauden eragileak. Espainiar Estatuak Euskal Herrian burutzen duen eskubide urraketa masiboa eta euskal herritarren aurkako indarkeria bertan behera utzi dezan behartzeko esfortzuak biderkatzeko garaia da, oinarri demokratikoen aldeko lana eta herri mobilizazioa indartuz.*

*Errepresioak ez du etenik eta datozen aste eta hilabeteotan antzeko polizia operazio gehiago etorriko direla aurreikusi daiteke. Honen aurrean herritarren erantzuna antolatu eta kalera ateratzea beharrezkoa izango da. Errepresioak demokrazia eragozteko du helburu, eta prozesu demokratikoaren bidean beharrezkoa izango zaigu errepresioa eragozteko. Horretarako konpromiso zintzoa behar da, horretarako ekimen eraginkorrak behar dira, ez dute hitzek balio atzean urratsak ez badatoz.*

***Hau guztia kontuan hartuta honako mozioa aurkezten dugu osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:***

*1.- Udal honek irmoki salatzen du PSOEren gobernuaren aginduz euskal herritarren aurka garaturiko azken operazio poliziala.*

*2.- Udal honek atxilotuak izan diren ezker abertzaleko kide guztiei bere elkartasun osoa bidali nahi die eta beraien askatasuna eta eskubideen alde egingo diren mobilizazioekin bat egin du.*

*3.- Udal honek estatu espainolaren jarrera onartezina dela adierazi nahi du, independentziaren alde lan egitea eta Euskal Herriak pairatzen duen gatazkari konponbide demokratiko bat emateko konpromisoa kriminalizatzearekin batera bortizki jazartzen duelako, agerian utziz, berriro ere, Euskal Herriarentzako ez dagoela ez eskubide ez askatasun demokratikorik.*

*4.- Udal honek ideia eta proiektu guztiak demokratikoki defendatzea eta gauzatzea ezinbestekoa dela adierazi nahi du.*

*5.- Bide beretik, udal honek, Euskal Herriak aldaketa politikoa inoiz baino beharrezkoagoa duela nabarmendu nahi du, espainiar konstituzioa eta ezartzen zaigun marko autonomikoaren barruan ezin duelako gure herriak eskubiderik ezta etorkizunik izan.*



*Hortaz, Udal honek gatazkari konponbide demokratiko bat ematearen alde bere esku dagoen guztia egingo du, Euskal Herriak marko demokratiko bat behar du, herri bezala dagozkion eskubideak izan eta proiektu guztiak askatasun osoz gauzatzeko aukera eskainiko duen marko bat, hain zuzen ere.*

*6.- Onartutako mozio hau komunikabideei eta herritar guztiei helaraziko zaie.*

## **16.- GALDE-ESKEAK.**

### **16.1.- OSOKO BILKURETAKO GAIEI BURUZKO DOKUMENTUAK PROIEKTATZEA.**

Maider Otamendik proposatu du osoko bilkuran aztertzen eta eztabaidatzen diren dokumentuak pantailara proiektatzea Alkatearen ordenagailu eramangarritik. Esan du horrekin ekidingo litzatekeela zinegotzi bakoitzak hainbeste orri inprimatu beharra eta era berean aztertu eta eztabaidatzen den gaia bistan egongo litzatekeela.

Alkateak proposamena onartu du.

### **16.2.- LANDA INGURUNEAREN GARAPENERAKO DIPUTATUAK OÑATIKO HILTEGIARI BURUZ BIDALITAKO IDATZIA.**

Pierrugues jauna: Nik bakarrik hiltegiari buruz diputatuak bidalitako gutunarekiko nire ezinegona adierazi gura dut. Uste dut jarrera oztopatzailea eta manipulatzailea dela. Nik uste dut horrelako proiektua aurrera eraman eta prestatzen hainbat urte eman ondoren, -bere garaian ere proiektua gelditzeko ahaleginak egin izan zuten, baina guztion arten ahalegin hori gelditzeko gai izan ginen, orain, elkarte berri bat sortzeko eta aurrera egiteko itxura guztia duenean, orain arte egindakoa gelditzea duela helburu, bakar bakarrik berak pentsatutako proiektu batekin estaliko delako, eta gainera, bada, ez zait une egokia iruditzen. Baditugu okela zentralizatzeko beste esperientzia batzuk, Gurokela esate baterako, porrot egin dutenak. Eta Eusko Alderdi Jeltzaleak, urte hauetan EAEko nekazaritza eta abeltzaintza politika zuzendu duena, zentralizatzeko egindako saio guztiek porrot egin dute, bakarrik beraien jendeari eta beraien komisario politikoei irtenbide bat emateko balio izan dute, eta hala ere, deigarriena da funtzionatzen dituzten gauzak direla kontrolatu eta zentralizatu behar dituztenak sektorea kontrolatzeko nahi horrekin.

### **16.3.- MOJEI ESKERRAK EMATEKO KOMUNIKATUA.**

Eraña andreak proposatuta eta gaia aurrez eztabaidatu ondoren, Eskoriatzako herriarentzako hainbat urtez mojek egindako lana eskertzeko, Udaleko Gizarte zerbitzuak prentsa oharra prestatu ditzala erabaki da.

### **16.4.- AUTOPISTARENGATIK KONPENTSAZIO NEURRIAK**

Leceta jaunak galdetu du nola dagoen autopistarengatik jaso beharreko konpentsazio neurrien gaia.

Salaberria jaunak erantzun dio oraindik ez dela egin "azpiegitura" bilerarik, gaia ez dela aztertu eta Bidegi bilerara etortzeko zain daudela.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura zortziak eta laurdenetan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebrada en fecha 31-05-2010, 08-07-2010, 26-07-2010, y 13-09-2010.

El acta de la sesión de fecha 26-05-2010 queda pendiente de aprobación porque se acuerda que previamente se recojan literalmente las intervenciones habidas cuando se debatió el asunto relativo a "REVOCACION DE ACUEDO ADOPTADO POR LA CORPORACION EN RELACION AL EDIFICIO DE LA RESIDENCIA".

## **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA Y RESOLUCIONES DICTADAS.**

### **3.1.- RESOLUCIONES**

El Sr. Alcalde da cuenta de los acuerdos adoptados hasta el 28 de setiembre de 2010 haciendo entrega de una copia del extracto de los mismos.

### **3.2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA**

El Alcalde manifiesta que no se va a extender porque el punto de aprobación de actas ha sido lo suficiente extenso, y que por ese motivo también es por lo que decidió mantener el día de la sesión ordinaria y no acumular más actas con otra sesión extraordinaria. Si bien, añade, en breve habrá que celebrar una sesión extraordinaria con motivo del asunto del matadero.

## **3.- FORMALIZACIÓN DE CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LA COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DE LOS GARAJES DE LA PLAZA OLAETA. APROBACIÓN DE APORTACIÓN.**

La comunidad de propietarios de los garajes sitos en la plaza Olaeta se plantean la reparación de la cubierta de los garajes debido a los problemas de filtración de agua que se presentan en ellos.

La zona afectada por la reparación tiene la condición de solar privado subedificado con servidumbre de uso público en superficie. Las malas condiciones en las que se encuentra la pavimentación de dicha zona, así como los accesos peatonales a la misma y las escaleras hacen que el Ayuntamiento por su parte se haya planteado la conveniencia de diseñar y renovar la red de drenaje superficial, cambiar la pavimentación y reparar las escaleras y descansillos existentes.

Considerando que resulta de interés público el llevar una actuación coordinada, por cuanto que con ello se reduce el coste económico evitando posteriores reposiciones de obras, se ha considerado oportuno que el Ayuntamiento proceda a recoger en un único proyecto la mejora y acondicionamiento de la pavimentación, el drenaje superficial y la impermeabilización del forjado de los aparcamientos para solventar los problemas de goteras y humedades, adecuando la plaza y el recinto de uso público. Dicho proyecto ha sido redactado con fecha julio de 2010 por ERAIKI S.L.U.



